

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ehun profesional baino gehiago bildu dira ibaiak lehengoratzeko bioingeniaritzako jardunaldian

*Bidasoa eta Leizaran ibaietan erabilitako bioingeniaritzako teknika berriak ezagutzera eman dituzte, Europako H2OGurea proiektuaren esparruan*

Osteguna, 2018.eko azaroak 15

Nafarroako, Euskadiko, Aragoiko, Asturiasko eta Comunidad de Pays Basqueko ehun profesional eta teknikari baino gehiagok hartu dute parte gaur goizean Iruñean, Kantauri itsasoko arroko ibaiak lehengoratzeko bioingeniaritza-arloko irtenbideei buruzko jardunaldian. [Europako H2O Gurea proiektuaren](#) esparruan antolatu da, Urumea, La Nivelle eta Bidasoa ibaien mugaz haraindiko kudeaketarako, Nafarroako, Euskadiko eta Communauté d'agglomération Pays Basqueko administrazioak koordinatzeko helburuarekin, ibaien kudeaketa hobetzen lagunduko duten estrategiak ezartzearen.

Bioingeniaritzak landareak elementu nagusizat hartzen ditu paisaia eraikitzeke eta birsortzeke. Era horretan, ikuspegi integratua du, ibaiaren dinamismoa alde batera utzi gabe, ibaiak aldatzen den izate bizia bezala hartuta. Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia den Eva García Balaguerrek adierazi du jardunaldi hauek egitea "teknika hauek aplikatzeko beste urrats bat dela, eta, modu honetan, ibaietako ekosistemetak presioen eta inpaktuen aurrean irtenbide berriak proposa daitezkeela, horien ondorioz hondamen ekologikoa eta ingurumen-arlokoa, eta, beraz, gizakia ibaietatik urruntzea gertatu baita". Halaber, ondorengo gogoratu du: "hemen gauden administrazioak teknika horien aldeko apustua egiten ari gara, Kantauri itsasoko arroko ekintza ezberdinetan, ur-masak berreskuratzeko Europako zuzentarauen helburuekin bat egiten baitute".

Jardunaldian honako hauek hartu dute parte: H2OGurea proiektuko bazkideek, toki-erakundeetako ordezkariak, Ebroko eta Kantauri itsasoko Konfederazio Hidrografikoetako langileak eta ibaien gaineko bioingeniaritza-sektoreko enpresek eta profesionalak.

Hitzaldi nagusia gai horretan aditu gorenak eman du, Paola Sangallik, Paisaiaren Bioingeniaritzako Europako Federazioko lehendakariak. Sangallik azaldu du paisaiaren bioingeniaritzak ikuspegi integratutik esku hartzen duela. "Ibaiertzetako landareak berreskuratzeko, ibai bazterrak egonkortzeko eta ibaietako habitatak birsortzeko prozesu naturalak bizkortzen dituen motorea da".

Nafarroako Gobernuak, Communauté d'Agglomération Pays Basqueko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Uraren Euskal Agentziako

teknikariek bioingeniaritzako teknika ezberdinak (Krainer hormak, horma berdeak edo ibilguetan enborrak jartzea) erabilia ibaiak lehengoratzeko zenbait proiektu pilotu azaldu dituzte, Kantauri itsasoko isurialdeko ibaietan erabiltzeko aukera aztertzearen, haien ezaugarrien arabera.

Jose Ignacio Bergarak, Nafarroako Gobernuko Ibaiak Lehengoratzeko eta Arraien hazkuntzaren Kudeaketako Atalekoak, Arraiozen, Baztan ibaian egindako lanen berri eman du. "Ibaiaren ia kilometro bateko zati bat aztertu eta zortzi teknika ezberdin erabiltzea erabaki dute. Horietako bi oso berriak dira gure lurraldean; hots, 'estratu bizia' eta 'arrabota bizia'. Orain arte, arro hauetan, inoiz ez zen horrelakorik praktikan jarri".

Jardunaldiari amaiera emateko, Nafarroako Ingurumen Kudeaketako (GAN-NIK) María Díez de Arizaletak Bioingeniaritzako Eskuliburuaren aurrerapena aurkeztu du, H2OGurea proiektuko bazkideek egindako esperientziekin.

### **H2O Gurea proiektua**

Mugaz haraindiko uren kudeaketa partekatuko proiektuan bost emari nagusi biltzen dira: Bidasoa, Urumea, Oria, Urdazuri eta Araxes. Proiektuaren %65a Eskualdeko Garapeneko Europako Funtsak (FEDER) finantzatzen du Espainia Frantzia Andorra Lankidetzako Programa Eragilearen bitartez (POCTEFA 2014-2020). Sei bazkidek guztira 3.744.733 euroko aurrekontua dute, eta horietatik 375.086 euro Nafarroako Gobernuari dagozkio GANen bitartez.

Plana 2016ko udaberrian jarri zen abian, eta 2019ko maiatzean amaitzea aurreikusten da. Ordurako bi helburu nagusi bete nahi dira: mugaz haraindiko arroa guztien gaineko ikuspegia eraikitzea eta Europako legediak ezarritako helburuak lortzeko lan egitea.